13 zka 1994.eko Urtarrila

# GEU GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria








BEGIRADA BEREZIAK

***Dupont, Cartier, Gianfranco Ferré, Giorgi Armani, Vogue, Ducci, Dunhill, Lavin, Reporter, Christian Dior***

*Halako emakume estiloari, holako begirada estiloa. MULTIOPTICASen DUCCI bilduma berri eta esklusiboa. Eredurik erakargarrienak. Joerarik egungoenak. Diseinu edergarrienak. Zure begientzat bakarrik, MENDIA OPTIKAn bakarrik.*

MENDIA OPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza • Olagibel, 33 (anbulategi aurrean) GASTEIZ


Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

Esta Navidad será una ventana

abierta a la esperanza.

Para ello sólo es necesario

un soplo de cariño e ilusión.

Es el deseo de la Diputación

para todos los alaveses.

Gabon hauetan esperantzari

leiho bat zabalduko diogu.

Horretarako maitasun eta ilusio

besterik ez da behar. Hauxe da

Foru Aldundiak arabar guztioi opa

nahi dizuena.

# ¡Felicidades!



# Zorionak!

Diputación
Foral de Alava

Arabako
Foru Aldundia

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## NON - ZER


**4.** Abel Enbeita

**5.** 1993: bukatu da!

**6.** Kalea mintzo

**8.** Gabon zaharra bertsotan

**9.** Erreportaia: Eguberriak: atzokoak eta gaurkoak

**15.** Erreportaia: Gabon zaharra: urtea ondo bukatu.

**19.** Gabonetan arpa jotzen

**20.** Haurrak

**22.** Sukalde Txokotik

**26.** Kultur Ajenda

**28.** Denborapasa

**30.** Komikia


eta gainera, aurten gure aldizkarian protagonista izan direnen iritziak.



# Gure esku

Zuen etxeetatik pasa naiz orain dela gutxi. Batzutan txanpan botilak erdi hutsik ikusi eta bildots usaina nabaritu dut, beste batzutan solasaldi atseginen ondorengo giroa, haurren urduritasuna eta jolasen hondarrak; baina baita ere bakardadea, tristura eta galdutako lagunen hutsunea nabaritu ditut.

Ni alaitasuna eta zoriona banatzen ahalegindu naiz, denok barnean gordetzen dugun nahi ezkutu hori betetzen. Eta beti bezala, zoragarria da haurren naturaltasunean ikustea esker on hori, zoriontasun sentimendua eta irrifarra ezpainetan.

Zuen etxeetan egon naizela esan dizuet, eta urtero urtero egoten naiz. Bai bai, asko aldatu da hiri hau azken urteotan. Nik lehen oso etxe gutxi ezagutzen nituen, oso etxe gutxitan zuten nire berri. Orain berriz, kaletik paseatzen naute "lanean" hasi baino lehen eta gero eta neska-mutil gehiago entzuten ditut euskaraz hitzegiten. Beno, neska-mutilak eta baita bizarra eta urte pila bat duten gizonezko edo lanean ari diren emakumezkoak ere. Bai, asko aldatu da Gasteiz, eta onerako nire ustez; orain atseginago dago paseatzeko, berdegune asko ditu, piszinak, kirolariak,... Hala ere badago oraindik ere konpontzeko kontu asko.

Denon eskutan dago gure barne egoera hobetzea. Herri hau hain gogor jotzen duen langabeziaren kontra aritzea, bakoitzak bere neurrian beti, ahal duena egiten, bere lana hobetzen. Gure eskuetan dago herri hau pakebidean jartzeko urratsak ematea, gure esku eguneroko bizimodua hobetzea, giza harremanak zintzoagoak eta jatorragoak izatea. Gure esku, egunero euskaraz bizitzea, Gasteiz hau euskaldunagoa egitea, esku artean dugun aldizkari hau hobetzea,...

Ni datorren urtean itzuliko naiz zuen etxeetara alaitasuna eta zoriona banatzen, berriro izango naiz haur eta helduen itxaropenen lekuko. Baina baita ere pobrezia, tristura eta bakardadearen testigu. Aurtengoa baino txikiagoa izango ahal da hau!

**Olentzero**


Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

GEU GASTEIZ
*Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria*
**1691 Postakutxa**
**Tfnoa 26 25 92**

*GEU elkartearen babesarekin*
*5.000 Aleko Tirada*
*Lege-Gordailua VI-582/92*
*ISSN: 1133-0988*

***Zuzendaria:*** *Joseba Gorostiza* ***Erredakzio-batzordea:*** *Iñigo Barruso, Xabier Etxaniz, Mikel Garmendia, Txema Millan, Patxi Salaberri* ***Kazetariak:*** *Leire Lopez de Aberasturi, Inaxio Lopez de Arana, Ismael Diaz de, Mendibil, Olatz Irizar* ***Komikia:*** *Iñigo Sarasola* ***Maketazioa:*** *Blanka Agiriano, Alex Badillo* ***Publizitatea:*** *Martin Rezola* ***Argazkilariak:*** *Lukas Etxeberria, Joseba Olalde, David Aguilar, Joseba Unzalu, Josu Txabarri* ***Kolaboratzaileak:*** *Agurne Aizpitarte, Asier Garro, Txipi Ormaetxea*

*Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)*

*GEU GASTEIZek ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzunkizunik*




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



## ABEL ENBEITA

### Bertsolaria

**AGUR**, agur urte zaharra... joan zaite lotara...

Badihoa, bai, badihoa 1.993 agure zaharra. Ez dakit portatu den, baina ezin geldiarazi.

Eta urtarrilatik abendura, hutsik egin gabe, hortxe izan dugu «Geu Gasteiz» aldizkari euskalduna, hiriko gora behera guztiak astinduaz. Ale guztiak irakurri izan ditut, atseginez gainera. Kale gorriko arazoak, bertsoak, marrazkiak, iritziak,... guztiak. Mila zorion posible izan dadin izerdia isuri duzuen guztiori.

Baina ezin gintezke 1.993.an eta lotan etzanda gelditu. Abiadan datorkigu 1.994.a eta ezinezkoa dugu trena galtzea, Aldizkariaren trena. Gaur egun bost mila bidaiari daramatza... datorren urtean? Gasteizen, hala uste dut nik, bada Euskaraz irakurriko lukeen gehiagorik. Eta horientzako zer egokiagorik «Geu Gasteiz» aldizkaria baino? Gaur irakurtzen dugun bakoitzak bere aldameneko, auzoko edo lagunen baten harpidetza bakar bat lortzea aski litzateke gaur egungo irakurlegoa bikoitzteko. Horrela, euskal esparrua zabaltzeaz aparte, aldizkaria bera ere sendotzea eta hobetzea lor genezake.

Bestalde, eta aurrera begira, beste bi arlorekiko iritzia jaurtiki nahi nuke. Alde batetik, albisteak, iritziak, kuriositateak... bakoitzak pilatu ahal dituen datu guztiak bidaltzea, antolatzaileen lana erraztu eta aberastuz. Eta bestetik, ezagutzen ditugun lagunen, eta nola ez, ahal izanez gero, nork bere publizitatea aldizkarian ezarri eta barne ekonomiari arnasa pixka bat emanez.

Bejondeizula «Geu Gasteiz»

Zatoz, zatoz urte berri... urte berri ongi etorri...

### ZER ESKATZEN DIOZU ALDIZKARIARI DATORREN URTERAKO

❑ «Bidea bidea eginez, hurrengo urterako, ea agertzen diren euskal dantzak eta musika»

**Pedro Elosegi** (Udal Folklore akademiako zuzendaria)

❑ «Auzokideen berri ematea ondo legoke»

**Roberto Mtz de Marigorta** (Gasteiz-Txiki Auzo Elkarteko partaidea)

❑ «Ea hurrengo urtean aldizkariak gailurra jotzen duen»

**Alberto Zerain** (Mendizalea)

❑ «Ea 94. urtean garaiz iristen den etxera»

**Txusta** (Tabernaria)


**AURREKO ZENBAKIAN** agindu genizuen bezala, argazkian dituzue, lagunok, EROSKIk GEU elkartearentzat atseginez osatutako 2 gabon saski horien zozketan sarituak: GEU elkarteko bazkideen artean PEDRO MARI DIEZ DE ULZURRUN eta GEU GASTEIZko irakurleen artean ROBERTO MORAL MEDEL

GASTEIZ EUSKALDUNA

# ZORIONAK








Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# 1.993, bukatu da,... bukatu da....
# ...bukatu da, akabo!




ELKAR

FAGOR

SUKALDEKO
HALTZARIAK

Manuel Iradier, 37

Tfnoa: 25 45 88

Faxa: 27 81 93

01005 - GASTEIZ

ALBENIZ
MOBILIARIOA



Cercas Bajas, 8
Telefonoa eta Faxa 28 74 82
01008 GASTEIZ



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Gertatu zaizun gauzarik onena eta txarrena?



ARACELI VICENTE
Artisaua

ONENA bidaiak izan dira. Nepalen egon naiz, Filipinetan ere... Okerrena izan da ez dudala nire lanak Enparantza Berriko Azokan saltzeko posturik lortu.



EDUARDO GOROSPE
Langabetua

HAIN gauza on gutxi gertatu zaizkit aurten. Onik batere ez: aurrera jarraitzen dudala, agian. Txarrena?... Langabezira bidali nautela.



ALEX RUIZ DE AZUA
Langabetua

EZ DAKIT, onena musika talde bat osatu dugula eta plazaz plaza ari garela. Txarrena?... Ospitalean emandako momentuak.



ANE LOPEZ DE ABERASTURI
Enplegatua

ONENA nire alaba izan da. Gauza txarrik? Ez dakit. Ezin dut gauza txarrik esan. Orokorrean urte ona izan da niretzat.



FEDERICO SARAZIBAR
Abokatua

ONENA neskalagunarekin bizitzera joatea izan da. Okerrena. Alaves-a ez igotzea.



ELENA ROSERAS
Idazkaria

EZ DAKIT zer esan, gauza guztiak izan dira onak. Bai..., ez dakit, dena nahiko ondo.



JOSE ATXA
Garraiolaria

ONENA?... ondo nagoela neska lagunarekin. Txarrena izan da batzutan lanik ez daukadala.



JOSU TXABARRI
Argazkilaria

URTE arrunta izan da. Ez du ezer nabarmenik izan, ez ona, ez txarra. Agian, horregatik, normala izan delako, urte ona izan dela esan daiteke.

GARNICA
FERRETERIA ETA ETXERAKO TRESNAK
Gorbea kalea 40 • Tfnoa: 24 18 73



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# 94rako desiorik?



JOSE CRESPO
Langabetua

LANA, lan bat aurkitzea, edozein lan mota. Horixe da 1.994rako espero dudan bakarra.



ARTURO
Kaleko artista

ZER ESANGO dizut, bada. Guztiontzako lana egon dadila. Hori izango da, seguru aski jendearen %95a erantzun berbera eman duela.



EMILIO PASCUAL
Irratiko kazetaria

EZ DAKIT zer esan! Zoriontsua izatea. Hori da nire desio bakarra. Horrekin konformatzen naiz.



JULIO ALVAREZ
Administrari laguntzailea

LAN EGITEA. Bakarrik hori. Oposaketak ateratzea eta... Alaves-a igotzea. Besterik ez!



JON BASABE
Fisikaria

NIRETZAT?..., ez dakit. Betiko txorakeria, osasuna eta zoriontsua izatea.



SERAFI SAGASTA
Jubilatua

PERTSONA MAILAN osasuna, hezurrak sendatzea eta hurrengo urtean ea tokatzen zaigun loteria!



AGUSTIN ZAMARRON
Medikua

ELKARTASUN handiagoa, jakina, bai nazioarteko mailan, baita gure artean ere. Horixe bera! Elkartasuna gehiago lantzea gure artean.



PATXI FRANCO
Langabetua

INONGO dudarik gabe, lana aurkitzea. Eta baita dena ondo ateratzea ere.

azkarprint
lehen fasprint
Cercas Bajas, 4
Tfnoa: 27 92 51
Fax: 25 42 10
Inprenta zure zerbitzura

- Eskutxartelak
- Fakturak
- Eranskailuak
- Gonbite txartelak
- Aldizkariak
- Txartelak

Zerbitzu bereziak:

- Paper birtziklatua eta ekologikoa
- FOTOKOPIAK KOLORETAN
- Kamisetetan estanpaketak



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## GAZTAINAK

SUKALDE zoko goxo horretan
gaztaina ximelak dira erretan
Gabon gauean hori da gaia
sudurretara dator usaia
dasta ditzagun
txakolin zaharra harturik lagun
ta gero kanta ta dantza ttun-ttun

**Abel Enbeita**

## GAUZARIK POLITENA

GABONETAKO inportantea
familia hurbil izatea
opariek ez dute balio
baizik eta elkartzeak
denon artean lortuko dugu
behingoz alai egotea
eta orduan jakingo dugu
benetan maitatutzea.

**Unai Berrostegieta**

## URTEKO KRONIKA

INDURAIN eta Barça garaile,
bat Tourran, beste Ligan
eta PSOE, baita garaile
ekaineko rebalidan
Paroa gorantz, Bundesbank eta
Super Lopez-en mugida
ta Yugoslavia jarraikitzen du
odol jarioen jiran
albiste txarrak izan ditugu
bat bestearen segidan.

**Dani Castaños**

## MAHATSAK

NAHIZ eta mahatsik gabon zaharretan
jaten ohituta ez egon
hori eta beste jan guztiak be
egin daguziela on
Lehen eta behin Geu Gasteiz honi
opa diot urte berri on
eta nere partez irakurlei
ere hamaika zorion

**Josetxu Larreina**

## TXANPAINA

BERE burbuilak eta
bitsen oihartzuna
gabonetan txanpaina
da gure laguna
angula tripakada
beti da astuna
hoiek jaisten txanpaina
laguntzen diguna
korroskada egin ta
danoi osasuna

**Serapio Lopez**

## GABON ZAHARREKO AFARIA

GABON ZAHARRETAN bazter orotan
afari eta kotillon
toki egoki xamarrak dira
El Parral ta El Portalon
baina neronek sendiarekin
gau horretan nahi dut egon
edariari egingo diot
bestetan hainbat jaramon
mahatsik trabatzen ez bazait
nezake mila zorion

**Rikardo Glz de Durana**

## 12AK JOTZERAKOAN

DIN DAN bolera entzuten dugu
dozena bat kanpaikada
istant batean urte zaharra
doinu onez dugu laga
mahats aleak azkar irentsiz,
hau da eztarriko traba!
Urte zaharra eta berria
agurtuz batera, hara!
aitzaki ederra egitekotan
parranda eta algara.

**Xabier Riko**

## GABON ZAHARREKO PARRANDA

EGUNA luze baldin badoa
gaua da luzeagoa
ardo botila txanpaia edo
pattarrez bustitakoa
Gabon zaharreko parranda hori
dugu dotore askoa,
baina duda bat beti izan dut.
Eta galdera hor doa.
Gabon zaharreko parranda deitu
edo Urte Berrikoa?

**Ohiane Perea**

## BIXAMONA

ORDUBATA ta erdiak dira
oheratu da amona
parrandarako prest gaude baina
guztia ez da hain ona
txanpaina sobran Baileys ugari
koka-kola eta rona
hau izango da urte berriko
lehenbiziko bixamona.

**Zigor Enbeita**

axular
LIBURUDENDA
Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ

ARTEPAN
ARTEPAN
Artisau
Okindegia eta Goxotegia
Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Bertsolari familiaren afaria











ONAINDIA garraioak

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

Tfnoa:
908. 67 34 77



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Urte berriari!



GERO beltz hontan al da irririk?
Urte berriaren izpi baikorrik?
Langabezia aldapa gora
askatasuna gezur zulora
zatoz, zatoz bai
ta jarri gaitzazu zorionez blai
herriak al du beste ezer nahi?

**Abel Enbeita**

ONGI ETORRIA eman nahi diot
berriro urte berriari.
Ai! zenbat gauza eskatu nahian
jaioko den txikiari!
Bertso Eskolan ibiltzen gara
banatzen hamaika sari,
asko ez bada amets egin dut
lortzeko aurten bat edo bi.

**Karmele Madinabeitia**

URTE BERRIA kristona dator,
aurreztik dinotsuet nik:
Langabetuen egoera beltza
konponduko da iadanik;
ura, ogia ta garagardoa
emango dira dohainik.
Altuago eta guapoagoak
izango gara, azkenik
ta hola ezpada, ez esan behintzat
optimista ez naizenik.

**Dani Kastaños**

URTE BERRIA etorri dator
urte zaharraren truke
nola zaharrak ez duen izan
guk nahi hainbeste bertute
krisia eta hainbat istilu
neguarentzako sute
mutil guztiak itsuak dira
edo txarra dute.
Urte Berriak nobio berria
ekarri beharko luke.

**Ohiane Perea**

NOVENTA Y DOS-A utzi genuen
ta orain noventa y tres-a
agintarien ustez bukatuz
krisia eta stresa
baina promesak, promesak dira
ez da izango erreza.
Urte Berriak Euskal Herrira
nahi duguna ekar beza.

**Zigor Enbeita**

GERTATU behar dena
hurrengo urtean
Aladinon lanpara
aurkituz kalean
nere ametsa bete
hauxe gertatzeari
Euskal Herri guztia
egonez pakean
ta Kuba ikustea
askatasunean.

**Izotz Garcia**

Ardatz itzulpen eta euskara zerbitzuak
Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

HEGOALDE euskaltegia.
Florida 58, behea. Tfnoa. 284196 - 01005 GASTEIZ



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Eguberriak:
## kristau kultura eta ohitura zaharren topaleku














Atsegin ala gorrotagarri guztiok murgiltzen gara Gabonetako zurrunbiloan. Jai hauen oinarrian kristau kulturaren eragin nabarmena ikusten den arren Euskal Herrian Eguberriak euskal sasoimuga errito zaharrekin bat egiten duela agerian geratzen da ospakizunaren esanahian apur bat arakatuz gero. Euskal errito zaharren tradiziotik datoz Olentzero eta baita Eguberri hitza bera ere. Ba al dakizue nor edo zer den Olentzero edota ospatzen ditugunak Gabonak ala Eguberriak diren?



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## ATZOKO ETA GAURKO GABONAK



**ANTONIO RIVERA**
**historia irakaslea EHUn**

"Gizartea bera aldatu da eta beraz, Gabonak ere aldatu dira. Baino funtsean aldaketa ez da hain sakona izan. Orain gehiago konsumitzen da. Erlijio kutsua aldatu bada ere, jai hauek familia artekoak izaten jarraitzen dute."



**BEGOÑA MURUAGA**
**irakaslea**

"Gabonak lehen familia biltzeko aitzakia ziren, egun kontsumismoaren munduan sartu gara eta oparia bihurtu da maitasunaren adierazgarri. Gabonak ez ditut gogoko, tristatu egiten naiz."

# Tradizioa eta historia

Zalantza hoiek argitzen hasteko jai hauen izenari buruz hitz egiten hasi beharko litzateke agian. Egun Gabon eta Eguberri hitzak sinonimotzat jotzen baditugu ere aipatutako bi tradizioen eraginaren adierazgarri dira.

Gabon hitza gaztelerazko 'Noche Buena'-ren itzulpena da eta kristau tradizioaren eragina erakusten du. Eguberri hitzak, berriz, jai kristau hauek neguaren hasierako euskal jai zaharrekin nahastu eta batu direla agertzen du. Honela izendatzen zituzten gure arbasoek urte berriaren hasierako egunak.

Olentzero hitzak ere gehienok uste baino askoz esanahi zabalagoa dauka. Hitz horrek abenduaren 25ean opariak ekartzen dizkigun ikazkina baino ez duela izendatzen uste ohi da baina Olentzero hitzak (Onenzero Euskal Herriko hainbat tokitan) abenduaren amaieratik urtarrilaren hasieraraino doan 'aro ona' ere esan nahi du. Eguzkiarekin lotutako euskal ospakizun zaharren ohiturekin harreman handia du horrek baina kristau kulturaren eraginez Olentzero Jesusen jaiotzaren berri ematen duen ikazkinaren figuran irudikatu da.

**"Sua Eguberrien ezaugarri bat da Arabako herri askotan"**

### Sua, ura eta eguzkia

Arabako hainbat herritan, Euskal Herri osoko zenbait herritan bezala, Gabonetan egiten diren errito askok agerian uzten dute orain arte azaldutakoa. Euskal ohitura zaharrek zer ikusi handia dute suak, urak eta eguzkiak eragindako erritoekin.

Gasteiztar kaletarroi arraro izango zaigu hori entzutea baina Arabako zenbait herrietan Eguberrien ezaugarri garrantzitsuenetakoa sua da, edo behintzat horrela izan da duela urte gutxi arte. Gasteizko zaharrenek ere ez dituzte







**GUREA**
jatetxea
Konstituzio Enparantza, 10
Telefonoa: 24 59 33

**MIKO**
izozkiak




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

gogoan hirian hau gertatzen zireneko garaiak baino horrek azalpen erraza du: herri txikietan askoz hobeto gordetzen direla ohitura zaharrak.

Sua, su mitologikoa, arrisku guztiak aldentzen laguntzen duen indarra da. Horregatik suak pizten dira Gabon edota Urte Zahar gauean Lautada, Zigoitia eta Zuiako hainbat herritan.

Sua egiteaz gain, sarri urtean zehar erabili ondoren, zaharrak geratu diren gauzak botatzen dira babesle mitologiko hori pizteko. Eta horrek uzten dituen errautsekin herrietako etxe guztien ateak markatu egiten ziren gaitz eta arrisku guztiak aldentzeko asmoz.



**“Gazteizen, kotiloiak , duela urte asko hasi ziren antolatzen”**

Gure herrietako plazetan egiten diren suerritoez aparte, Gabon eta Urte Za-harretako egun berezietan etxeko sua piztean ere ohitura zaharrak mantendu dira urte askotan zehar Laudio, Agurain, Aramaio eta beste hainbat arabar herritan.

Tokian tokiko tradizioak askotan sua pizteko erabiltzen den egurrak eta enborrak nolakoa izan behar duen zehazten zuen baita zenbat denbora iraun behar zuen piztuta ere. Gau horretan piztutako suaren errautsek abereen osasuna ziurtatzeko, ekaitzen kalteak ekiditeko eta beste kualitate batzuk dituztela uste izan dute gure baserritarrek urte askotan.

Urarekin harremana duten ohitura zaharrak urriagoak diren arren, herri askotan, Lañon besteak beste, Urte Zaharrean etxean bildua zeukaten ur guztia bota ohi zuten afaldu ostean. Gero, urte berrian sartu bezain laster, ontziak betetzen zituzten berriro ere.

## Hirian, kotiloiak eta opera

Herrialdeko toki askotan euskal ohitura zaharrak mantentzen ziren bitartean, egungo jaiekin zer ikusi gehiago daukaten ekitaldiak ospatzen ziren Gasteizen mende hasieratik. Eguberriak hiriko bizitza soziala eta kulturala bultzatzeko garai egokiak ziren eta horrela Principal antzoki zaharrak bere ateak irekitzen zituen Madrilen arrakastatsuak izan ziren komedia, zartzuela eta opera lanak hartzeko.

## ATZOKO ETA GAURKO GABONAK



**ITZIAR DE BLAS**
**BAGARE Euskal Tokikoa**

“Gero eta kontsumistagoak dira. Euskaldunon artean ere aldatu dira: txikia nintzenean Olentzeroa ez.zegon berpiztua Gasteizen. Dena den Gabonak haurrentzat dira gehienbat. Nik, adibidez, ez ditut horren gogoko”



**MARTIN FIZ**
**korrikalaria**

“Lehen nahi nuena egiten uzten zidaten, orain serioagoa da. Txikitan Olentzeroa edo Erregeak genituen, ez ginen kontsumismoaz ohartzen. Orain materialismoa zer den konturatu eta ikasi dugu poltsikoari ere begiratzen”

ANBOTO
TABERNA - JATETXEA
EGUNEKO MENUA
Kutxilleria, 29 - Tfnoa. 25 00 93 - 01001 GASTEIZ

Cerveceria Alemana
SALTXITXAK
KAZOLATXOAK
SANDWICHAK
Gerardo Armesto, 3 • (Gasteiz etorbidearen ondoan) Tfnoa: 13 29 88 • GASTEIZ



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

> **Mende hasieran umezurtztegiko haurrek kalejira egin ohi zuten Gabon kantak abestuz**

Kotiloiak ere ez dira batere gauza berria Gasteizen duela urte asko hasi baitziren horiek antolatzen. Lehengo garaietan, ordea, aberatsen etxeetan, kasinoan edota klub pribatuetan antolatzen ziren jaiak izaten ziren kotiloiak eta, noski, goi mailako jendeak baino ez zuen horietara joateko aukera izaten.

## Herriak tradizio zaharren gordeleku

Mende hasieran Gasteizko umezurtztegiko haurrek kalejira bat egin ohi zuten Gabon kantak abestuz eta jendeak ematen zien dirua bilduz. Hiriburuan hogeigarren hamarkadan galdu zen ohitura hau Arabako hainbat puntutan mantendu izan da urte askotan zehar eta afaldu aurretik herrietako gazte eta umeek auzokideak zoriontzeko kantuak kantatu ohi zituzten etxez etxe. Zorionen truke etxeko andreak ematen zienarekin azkaria egiteko aukera izaten zuten gazteek jaien ondoren.

Hau ez da Arabako herriek gorde duten ohitura bakarra. Trespuentesen, esate baterako, Eguberri gauean suan jartzen den enborrak ere 'gabon' izena hartzen du. Enbor handi bat da 'gabon' berezi horrek urte osoan iraun behar duelako eta horregatik, idien laguntzarekin eramaten zuten etxera.

Agurainen 'porrondoko' deitzen zioten enbor horri eta Eguberri gauean utzitako errautsak gorde egiten ziren ekaitza zegoen egunetan berriro ateratzeko. Bertako baserritarrek uste zuten modu horretan arriskua aldendu egiten zela. Aramaion ere errautsak gordetzen zituzten baina hurrengo urteko 'gabon sue' pizteko.

Plazan egindako suaren errautsak, berriz, herrian osoan zehar eramaten zituzten bertako gazteek Antoñana, Amarita, Koartango, Zigoitia eta Lautadako beste hainbat herritan. Herri guzti horietan, euskara eta gaztelera nahasten duen abesti bitxi bat kantatzen zuten errito zahar hori burutzen zuten bitartean: erre pui erre (erre ipurdia erre), quémale el culo a galerre.❑

> **Enborra da Arabako hainbat herritan mantentzen den beste elementua. Errautsak gorde eta horiek arriskua aldentzen zuten**

## ZER EGITEN DUZU GABON ZAHARREAN?



**IÑAKI LANDA**
**ZELEDON**

"Gabon Zaharrak niretzat asko aldatu dira azken urte hauetan. Oraingoak familia artean ospatzen ditut gehien bat. Badakizu nolakoak diren gauza hauek: aiton-amonak moteldu doaz eta familiak agintzen du hemen. Afaria aita-amaginarrebekin egingo dugu eta berehala etxera joan egin beharko dugu. Badakizu... semeak direla eta".



**IKER IBAÑEZ DE GARAIO**
**ZELEDON TXIKI**

"Gu, normalean, Gabon Gauean egin genuen bezalaxe, Urte Zaharrean osaba-izebarekin biltzen gara afaltzeko. Oso ondo pasatzen dugu guztiok. Egun hori eta Olentzero eguna politenak izaten dira neretzat. Opariak eta kantuak dira gehien gustatzen zaizkidanak. Gabon Gauan osaba Olentzeroz mozorrotzen da".


**IBUSGARRI**
t i n t a t e g i a
**Alfonbrak, mantak eta edredoiak, narruzko arropak, berokiak eta lumazko aropetan espezializatuak**
DOMINGO BELTRAN, 26 • JUDIMENDI,20
TFNOA 14 19 45 • 27 05 83 • GASTEIZ



Zaldiaran Enparantza, 10 • GASTEIZ




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Gabon zaharra

## Urtea ondo bukatzeko erak eta modak



Gabon Zaharra urteko gaurik zoroena izaten da. Kalean jaia da nagusi, eta tabernak jendez gainezka egoten dira. Gau horretan ez dago betarik lasaitasunerako, ahoetan "Urte Berri on" esaldia eta eskuetan edalontzia. Hotelek, jatetxeek, diskotekek, tabernek... eskaintza zabala aurkezten digute, horren truke poltsikoak hutsik utziko dizkigute. Agian 94. urteko lehen goizeko argitasuna ametsgaizto bihurtzen zaigu. Baina berdin da, datorren urteko Gabon Zaharra gero eta gertuago dagoelako.









Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## ETA GABON ZAHARREAN?



**JOXEAN KEREJETA**
**Baskoniako lehendakaria**

"Urterokoa egingo dut. Etxean afaldu, lagun baten etxean zerbait hartu... Kalean jende gehiegi dago, ez zait gehiegi gustatzen"



**JENNY PRIETO**
**Maritxu Berritxu irratsaiokoa**

"Lan egin behar dut. Gero guraso eta anaiekin afalduko dut. Ez naiz kalera irtengo, zikinkeria gehiegi dago. Pinto kalean ez dago lo egiterik. Kaleko festak goizerarte iraungo du eta beraz guk jasan beharko dugu. Gabonetan oporrak hartu eta Tenerifera joan nahi nuke"

# Gabon zaharreko bidaia



Urtea ondo hasteko makina bat era daude, kalera irtetzea edota kotiloi batera joatea horietako bi dira, baina ez bakarrak. Asko eta asko etxean geratzen dira, etxeko kotiloian parte hartuz, eta bada liburu baten laguntzaz lokartzen dena ere. Hala eta guztiz ere, Gabon Zaharretan gero eta gautxori gehiago omen dira, azken hauei zuzentzen dizkiegu lerro hauek, haiek aukera egin dezaten.

### Aldapako giro herrikoia

Gure ibilaldia Andre Mari Zuri Plazan hasten da. Gabon Zaharrean gazte askorentzat zita-lekua dugu hau. Kaleko giroa bizi nahi badugu eta geure gogoan ez badago kotiloirik, leku ezinhobea festa hasteko. Hemendik aukerak bi dira, bata, Aldaparantz abiatzea, bestea, Zapan sartzea. Batek baino gehiagok edozein asteburutan hartzen duen bidea bera jarraituko du gau horretan ere eta garagardoa edateari ekingo dio. Beste batzuk, aldiz, inoiz sartzen ez diren tabernetan aurkituko dituzu, eta urtean behin bakarrik izan arren, txanpaina edango dute. Zapan edo Aldapan gaueko izarrak gradu askotako edariak eta txanpaina izango dira. Egun honetan tabernazaleek

> **"Gabon Zaharretan gero eta gautxori gehiago omen dira"**

**arcaya**
Portal de Villarreal, 22-24
Tfnoa: 26 06 58
Portal del Rey, 21
Tlfnoa: 28 08 69

SOINUA
IRUDIA
ARGIZTAPENA
ELEKTRAGAILUAK
OPARIGAIAK

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK
zurbeltz
MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

gustokoa dituzten txikitoa eta zuritoa desagertzen dira barretatik. Dena den, alkoholik edaten ez duen jenderik badago, egon ere.

Kutxi, Pinto, Zapan... jende gaztea da nagusi, baina gaztea izateko mugarik ez dagoenez, ez dago esaterik zein adinak agintzen duen. "Bagare" Euskal Txokoak gau horretan ere zabalik izango ditu bere ateak, hemen eta bere inguruko tabernetan giro jatorra eta herrikoia aurkituko duzu. Kutxin bertan dagoen Hala Bedi irratiak ere saio berezia egin du azken urteetako Gabon Zaharretan. Irratsaio horren ardatza Gabonetako itxurakeria izan ohi da, eta, esaterako, orain urte batzuk hamabiak jotzean kanpanaden ordez korrokadak erabili zituzten urte berriari agurtzeko.

Kutxitik irtetzen bazara, taberna mota ezberdinetan sartzeko aukera ere izango duzu, Aldapa "tribu" desberdinen topalekua delako.

## Unibertsitari argiak

Bestalde diskotekak ere ditugu. Gasteizko ia diskoteka guztiek bere kotiloia antolatzen dute. Beraz, aukera zabala da. Sarrikoko unibertsitariek urtero alokatzen dute diskoteka pare bat. Aurtengoan ere Ekonomiakoak "Circulo"-n daude eta Enpresakoak "The End"-en. Badirudi euren fakultateetan ondo irakasten dietela, horiek negozioa usaintzen baitakite. Gabon Zaharrean lan handia egin behar izaten badute ere, gero Kuban edo Karibeko edozein hondartzatan ospatzen dute haien Gabon Zahar partikularra.

Beste diskoteka batzuk aipatzearren, gizon-emakume helduek eta neska zein mutil zaharrek "La Isla" diskotekan dute parada. "Elefante Blanco"-ko "tribu" bereziak diskoteka horretan bizi izango ditu urtearen lehen orduak. Jende gazte, eta batzutan modernoegiekin egon nahi baduzu, aldiz, hobe duzu "Dato Sur"-era joatea. "Bakalao"-aren mugida horretan dabiltzenekin ez gara kontaktuan jarri. Hala ere, ziur gaude zeozer arraro eta harrigarria egingo dutela. Giro xelebre hau Gasteizeko hiribidearen inguruko hainbat txokotan izango duzu.

**"Gasteizeko ia diskoteka guztiek bere kotiloia antolatzen dute"**

Leku guzti hauetan Gabon Zaharreko mozorroa prezioaren barruan dago. Badakizu konfite, zinta, serpentina, txano, karetak... Barra libre eta musika nahiko berezia, "patxangera" deritzona.

## Krisia ote dago?

Hotelen kontua beste mundu bat da, edozein sakelak ezin baitu halako kolpe bat jasan. Gasteizen kotiloien antolakuntzan "General Alava" Hotela izan da aintzindaria. Orain hiru urte lagun batzuek beste hotel batetan beren



## ETA GABON ZAHARREAN?



**ANA LUCIA VILLATE**
**Antzezlea**

"Madrilen egongo naiz, bertan antzezpena izango dugu eta. Funtzioa bukatutakoan talde osoa bilduko gara eta gazteenak kalera joango dira seguru asko. Nik lagunekin geratuko naiz. Puerta del Sol-era joan nahi nuke"



**MAITE ZUÑIGA**
**Korrikalaria**

"Bizkaian egongo naiz familiarekin. Jende asko elkartuko gara. Ondoren, buelta bat eman eta zerbait hartu tabernetan. Dena den, ni goizeko 3etarako erdi lotan gelditzen diren horietakoa naiz ni"









Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

kotiloi partikularra ospatzea hobea zela pentsatu zuten. Hori zela eta, "Gasteiz" Hoteleko arduradunei eskatu zieten lekua. Egun 500 lagun inguru elkartzen dira gau horretan. Jai pribatua dela esan genezake, eta zuri adibidez, zapatillekin joatea bururatzen bazaizu, kale gorrian geratuko zara. Beraiek onartzen dute pijoak direla, baina beraiekin jai giroan murgilduta izan nahi baduzu, etiketaz janztea derrigorrezkoa da.

Gure bidaia bukatzear dago, baina amaitu baino lehen, oraindik geltoki pare bati bisita egin behar diogu. "Ciudad de Vitoria" Hotelak bere ateak irekiberriak ditu, baina hala eta guztiz ere, 93. urteari agur esateko kotiloi bat ospatuko du. Afaria, eta kanpai-hotsen ostean festa eskaintzen duen kotiloi bakarra da. Alabaina garestiena da ere, noski. Dena den argi dago ia 14.000 pezetak ordaintzen dituztenek krisia ez dutela hurbiletik sentitu. Jatetxeei dagokienez, "Teide"-k etxetik kanpo afaltzeko aukera eskaintzen duten gutxienetariko bat da. Orain dela urte batzuk, "Andere" jatetxeak ere bere mahaikideei ateak irekitzen zizkien, baina aurten poltsikoei egokitutako kotiloi bat egitea erabaki dute. Ametsgaiztorik ez, eta **Urte Berri On!.❑**



# AUKERA-MAUKERAN

## HOTELAK eta JATETXEAK

| | PREZIOA | ADINA | ZE ORDU ARTE? |
|---|---|---|---|
| GASTEIZ HOTEL | 6.500 | 18-30 | 8rak arte |
| CIUDAD DE VITORIA | 13.500 (*) 8.000 | 30tik gora | 8rak arte |
| GENERAL ALAVA | 8.000 | 30tik gora | (-) |
| ANDERE JATETXEA | 5.500 | 30-50 | (-) |
| TEIDE JATETXEA | 6.500 (afaria soilik) | ADIN GUZTIAK | (-) |

(*) Afaria gehi kotiloia. Afaririk gabe 8.000

## DISKOTEKAK

| | PREZIOA | ADINA | ZE ORDU ARTE? |
|---|---|---|---|
| THE END | 3.900 | 18-28 | 6ak arte (kotiloia) Diskoteka (*) |
| CIRCULO | 4.000 | 16-28 | 6ak arte (kotiloia) Diskoteka (*) |
| DATO SUR | 8.000 | 20-30 | 11ak arte |
| LA ISLA | 4.500 | 30tik gora | (*) |
| ELEFANTE BLANCO | 2.500 | 25-50 | (*) |

(*) Jendeak alde egiten duenean itxiko dute

## KALEKO GIROA

GABON ZAHARRETAN jai nagusia kalea da. Alde Zaharreko kale estuetan jendetza egoten da, adin guztietakoa gainera. Tabernetan prezioak zertxobait igotzen dira, baina bakoitzak ahal duen neurrian ala zingilipurkaren arabera gastatzen du. Batek daki, bestalde, zein ordutan itxiko diren tabernak. Dena den lasai egon, eguna argitzear egongo da eta.
Gaztetxeko jendeak ere ateak zabalik izango ditu. Badakizu, nahi izanez gero, bisita bat egiezu.

EL PARRAL
JATETXEA ERRETEGIA
OKELA ETA ARRAIN ERREAK
Cantòn de San Fco. Javier, 4 • Tfnoa: 27 68 33 • 01001 GASTEIZ-

Zubentz liburudenda
Benito Ginea, 2 • Tfnoa: 25 75 14
GASTEIZ



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Gabonetan arpa jotzen

Iritsi dira Gabonak. Egun hauetan Gabonen sena eta horren inguruko guztia mintzagai izaten du jende guztiak, errealistak izan gaitezen baina. Hilak 28an eta Gabon zaharreán zeintzu inozentada egin behar dituen buruan dihardu jenderik gehienak (nik bai, behintzat). Gabonetan horiek baino askoz ere gauza gehiago dago, egon ere. Alabaina, bereziki bi egun horien ildotik joango da ondorengo guztia.

Hilak 28an, esaterako, lehen ohizkoa izaten zen jendea somatzea paperezko panpinatxo bat bizkarretik dindilizka zeramala. Baina, gaur egun, gauzak nola dauden ikusita, lagun urkoari egin diezaiokegun inozentadarik handiena hauxe da: inork lan finkoa eskeini diola esatea.

IAZ NIRE lagun bati oso gauza bitxia gertatu zitzaion. Bera taberna batetan zegoela, morroi bat bizikletaz iritsi zen bestara zera esanez:

- Pepe, Pepe, zure andrea beste batekin dago! Har ezazu nire bizikleta eta joan zaitez lehenbaitlehen etxera!.

Nere laguna bizikleta gainean jarri eta bi metro gutxiago eginda zituela, plast! sekulako zartakoa hartu zuen zuhaitz baten kontra. Honela omen zioen amorru biziz lurretik altxatzerakoan:

- Ni bai inozo puska! Ni ez naiz Pepe, ni ez nago ezkonduta eta, gainera, nik ez dakit bizikletaz ibiltzen!

HONELAKO beste pasadizo bat gertatu zen lagun talde bat taberna batetan zegoenean. Halako batean, batek zera esan zuen:

- Aizue, ba al dakizue begi beltzak dituzten emakumeek beren senarrak engainatzen dituztela? Estadistikak hala diote behintzat.

Orduan batek zera esan zuen:

-Ez dakit nik, bada, zein koloretako begiak dituen nire emazteak. Oraintxe bertan joango naiz ikustera.

Etxera joan eta bere emaztea ohean zegoen, lotan goxo-goxo. Begi bat zabaldu zion eta hau esan zuen jarraian:

- Kaguen zotz! Beltza!

Eta hara non ateratzen den beltz bat ohe azpitik honela zioela:



-Aizak, motel, nola harrapatu nauk?

Beraz, bada, inozentadekin kontu handiz ibili behar da. Eta hilak 31ean zer esanik ez! Dena hankaz gora egoten da egun horretan. Ikaragarrizko atxurrak ikusten dira kalean zehar.

ESATERAKO, mozkorti bat eliza batean sartu zen urte zahar-egunean, noiz eta apaizak kaliza handi horietako bat esku tartean zueneko unean bertan. Hori ikusi eta honela esan zuen gure lagun parrandazaleak:

- Kopa hori nire kontu!

Algara entzunda, konfesionario batetan zegoen apaiz batek zera esan zion:

- Ixilik, mesedez!

Morroia horren aurrean ezin ixilik egon eta honela erantzun zien:

- Eta beste kopa bat zuretzat, komunetik ateratzen zarenerako!

ERABAT MOZKORTUTA zegoen beste morroi bat sartu zen taberna batetan honela esanez:

- Zorionak eta urte berri on!

Zerbitzariak berehala zera esan zion:

- Eh, aizu, Aste Santuan gaude!

Orduan ardoaren lagunak erantzun zuen!

- Ene, nolako errieta egingo dit andreak! Aurtengo Gabon zaharrean inoiz baino beranduago iritsiko naiz etxera!

Hortaz, kontuz ibili edaten duzuenarekin eta, nola ez, **Urte Berri On denoi.**

**A**lex **B**arredo


GORETTI
ILEAPAINDEGIA
San Antonio, 29-Behea
Tfno: 13 18 55
01005 - GASTEIZ

AZOKA
deportivos
Zure kirol- oinetakoak
Gorbea 27 tfnoa: 24 22 05
Ariznabarra 17 tfnoa: 14 71 33




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# hAurRAk

## Judimendi: haurren txokoa

Dagoenean bon-bon,
ez dagoenean egon.

Ardo goxoak
lau begi eta oinik ez

Lehendabizi jan
eta hurrengo urtean
lan

Nolako soinua
halako dantza

ESAERA ZAHARRAK

EGUN HAUETAN zehar eta oporrak diren bitartean Judimendi Gizarte-Etxea umeentzako txokoa izango da. Itxuraz aldatuko dira Judimendi aretoak eta egun hauetan Piraten erresuman bihurtuko dira. Beraz, aukera izugarria edozernolako gaizkikeria egin ahal izateko.

### Ibilbidea.

Piraten abentura portuko etxetan hasiko da, bertan 50 pezeta ordainduz pirata bakoitza hasiera emango zaio ibilbideari. Ez ahaztu! Guraso edota aiton-amonei 50 pezeta eskatzea. Portuko etxetan bideo-jokoetan aritzeko parada izango duzue. "Pim-pam-pum" izeneko jokuak animatuko ditu portuan egondako piratak. Leku horretan posible izango da arku eta geziak erabiltzea beste taldeko pirateen aurka aritzeko.



Pirateen ibilbidea eginez, aurkituko dituzu tailerrak mozorrotzeko. Begi-bakarra, garfio-gizona edo pelikuleetako edozein pertsonaia imitatzeko aukera zoragarria izango duzu. Mozorroa jantzirik, kantuaren ordua ailegatuko da "karaoke" kantu-makinaren bidez. Kantu-kantari saioa bukatu bezain pronto eta txistu bizian "Altxorraren bila" abiatuko dira ume pirata ausartak. Abor-daia! abordaia!. Itsasuntziz itsasuntzi salto egin ahal izango dute, ezpaten arteko borroka eta abar luze bat abentura egia bihurtzeko.

Laberintoan sartuz eta begiak estalita altxorraren bideari ekingo diote piratek. Bitartean, beste batzuk labana hortz artean estuturik, igeri eginez hurbilduko dira urrezko bitxiak harrapatzera. Ai! zernolako abentura!

### Eskalada eta sokak.

Sokak eta rokodromo erabiliz, pirata gazteek erakutsiko dute beraien trebezia abordaiak behar den bezala egiteko. Ez da abentura makala! Honako honetan jokuak era askotakoak izango badira ere, politena edo agian ikusgarriena, sokak erabiliz salto egitea diana batean jotzeko, izango da. Asmatu ala ez asmatu, hor dago koxka.

Eta azkenik, pirata guztiek itsasoan bataila txiki bat egingo dute. Puxikak, puztutako panpinak, kanoiak eta abarreko jostailuak erabili ahal izango dira abordaia burutu ahal izateko. Bataila honen berri irrati-pirata baten bitartez emango da ezagutzera guztiei. Ondoren, bukatu da, bukatu da, akabo.

### Zaldiko-maldiko.

Judimendi Gizarte Etxeko kanpoaldean, zaldiko-maldiko eta karruselak egongo dira. Horretaz gain, buru-haundiak, pottokak, txirringak eta kaleko jokuak izango dira. Ah! ez ahaztu Foru Enparantzan egongo diren zaldiko-maldikoak.

zure euskal
LIBURUDENDA
Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ
Herrikoia

UDABERRIA
elkartea
•Euskaltegi Homologatua
-Helduentzat
-Ume eta gaztetxoentzat
•Musika eskola
•Dantza
Uruguay, 9 •Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 63 12
GASTEIZ

Huluma
MASAIA - QUIROMASAIA
*Kote Zubizarreta*
Olagibel, 20 •Telefonoa 25 92 06



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Zer ekarri dizu Olentzeroak?



DAVID BIRITXINAGA
7 urte

BAI merezi dut, oso ongi portatu naiz. «La aventura del volcan» ekarriko dit. Bi kotxe daudan Scalextrik bat da. Lagunekin eta etxean ondo portatu naiz.



AITZIBER BARRELA
7 urte

NIK Olentzeroari «operazioa» eskatu diot: panpin bat da eta piezak kendu behar dizkiozu. Amatxo eta aitatxorekin ondo portatu naiz.



OIER SAEZ DE CAMARA
7 urte

EZ DAKIT. Kotxe teledirigido bat eskatu diot Olentzeroari. Ondo portatu naiz, beno, batzutan...



ITSASO RUIZ IRZIO
7 urte

OLENTZEROARI «mala cara» panpina eskatu diot. Panpin bat da eta ahoarekin jolasten duzu eta mugitzen da. Niri hori gustatzen zait.



ARAXE AKUÑA EGIÑO
7 urte

EZ DAKIT zer ekarriko daidan. Zerbait bat. Ondo portatu naiz. Panpin bat eta «Scalextric» bat eskatu diot. Ondo portatu naiz.



JON DAVID RODRIGEZ ESTRABIANA
7 urte

EZ DAKIT zer ekarriko didan Olentzeroak. Nik ez dut ezer eskatu. Beti ekartzen dit zeozer.



JULEN ALTXAGA
7 urte

OLENTZEROARI bideo-jolas bat eskatu diot. Asko gustatzen zait berarekin jolastea. Ondo portatu naiz.



OIHANE ONAINDIA
7 urte

NIK Olentzeroari «La Compi» eta bideo bat –101 dalmata– eskatu diot. Guraso eta ahizparekin ondo portatu naiz. Horregatik ekarriko dit.

ZORIONAK
ETA
URTE BERRI ON!

IZARRA TABERNA JATETXEA
BITORIANO
ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73

DEIADAR
GASTEIZ
FANFARREA
Telefonoa: 23 17 13



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# SUKALDE TXOKOTIK

Mireia Agirre

URTE BERRI ON • ON EGIN • URTE BERRI ON • ON EGIN • URTE BERRI



## LEHENA

### AZALOREA BETXAMELAZ

**Osagaiak:**

- Azalorea
- Ura
- Gatza
- Oliba olioa
- Betxamela egiteko:
  - Gurina
  - Irina
  - Esnea

**Nola egin:**

Lehengo azalorea ongi garbituko dugu, ondoren zatitu. Zatitua dagoenean egosten ipiniko dugu ura, gatza eta olio gordin pixka batez. Egosten dagoen bitartean betxamela egiten hasiko gara. Horretarako ontzi batean gurina desegiten ipiniko dugu su eztitan. Behin urtuta dagoenean irina gehitu eta irin zaporea kentzeko, ongi erreko dugu. Azkenik, esnea gehitu eta dena irakiten utziko dugu, irabiagailuaz ongi mugituz denbora guztian. Azken momentuan ondu egingo dugu, gatza eta piperrauts zuriaz.

Azalorea egosita dagoenean, ontzi azal batetan ipiniko dugu eta, betxamela gainetik gehitu. Horren ondoren gazta zatikatua jarri eta guztia gainerre egingo dugu. Orduantxe, prest egongo da jateko.

OHARRA

1) Betxamelaren kantitateak hauek dira:

-Momentuan erabili behar bada: litro bat esne, 60 gr irina eta gurina.

-Egin eta beranduxeago erabiltzeko baldin bada: litro bat esne eta 40 gr. irina eta gurina. Berotzen denean esne gehiago gehitzen zaio.

2) Betxamela aluminiozko eltzean egitea ez da komenigarria. Irabiagailua erabiltzen denean aluminiozko zati txikiak kentzen baitzaizkio eta, horren ondorioz, betxamelari kolorea aldatzen baitzaio.

## NOREN ETXEAN AFALDUKO DUZU?



**XABIER SANTXOTENA**
Sukaldaria eta eskultorea

“Gau horretan, etxekoak elkartzen gara, andrea, hiru semeak eta laurok. Aurreko egunak kanpoan igarotzen baditugu ere, gau horretarako etxean izaten gara. Semeak afaldu eta gero kalera doaz. Andrea eta biorentzat gau lasaia izaten da”

“Nik urtero amonaren etxean afaltzen dut. 87 urte ditu eta oraindik egun horretarako etxeko sukaldaria izaten jarraitzen du. Hamar edo hamabost senide biltzen gara normalean”



**JOSUNE BARANDIARAN**
Musika irakaslea
OLABIDE ikastolan



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# BIGARRENA

## MAKAILUA SALTSA BERDEAN



### Osagaiak:

- Oliba olioa
- Baratxuria
- Makailua
- Zaintzurien ura
- Perrexila
- Zaintzuriak
- Arraultze egosiak
- Patatak
- Ilarrak

### Nola egin:

Lehenik eta behin makailua gezatu. Ondoren honako pausu hauek jarraitu:

Buztinezko eltzean oliba olioa berotzen jarri. Bero dagoenean baratxuri xerrak gehitu eta kolorea hartzen utzi. Ondoren, plater batean utzi eta olioa hoztu. Epeldutakoan, makailua gehitu, azala beheruntz ipiniz. Mugitu ondo jelatina ongi atera dadin. Egina dagoenean azala goruntza ipini eta jarraitu jelatina ateratzen. Zainzurien ura ere gehituko diogu saltsa egiteko. Hau lortu dugunean, lehengo baratxuriak ipiniko ditugu gainean, baita perrexil txikitua, arraultze egosia, ilarrak, zaintzuriak eta patatak ere. Patatak «chip» erakoak izango dira: frijituak.

OHARRA:

Ez badu jelatina ondo askatzen, irin pixkat gehitu ahal diogu, baita ardo txuria ere. Lehen, makailu asko erosteko aukera ekonomiko handirik ez zegoela eta, lagungarri hauek erabiltzen ziren.

# ...eta BUKATZEKO

## KONPOTA

### Osagaiak:

- Sagarrak
- Madariak
- Ura
- Azukrea
- Mahats pasak
- Aran pasak
- Orejoiak
- Pikuak
- Kanela abarra
- Limoi eta laranja azala
- Ardo txuria




### Nola egin:

Sagarrak eta madariak zuritu eta zatitu egingo ditugu.

Eltze batean osagai hauek ipiniko ditugu: sagarrak, madariak, azukrea, mahats eta aran pasak, orejoiak, pikuak, kanela abarra, limoi eta laranja azalak. Azkenik, ura gehituko diogu fruitu guztiak ia estali arte.

Sutan ipini eta dena ongi egosten utzi.

Ongi biguntzeko gutxi falta duenean, ardo txuri pixka bat gehituko diogu. Ongi bigunduta dagoenean prest duzu jateko. Jan daiteke hotz edo epel.

OHARRA:

Sagarrak eta madariak ez belzteko limoi zukua urez nahastua gehituko diogu. Azidoa denez ez dira belztuko.

Hozkailuan ondo mantentzen da egun batzutan. Halere, sartu aurretik ondo hoztu behar da.

## ZER AFALDUKO?



**PATXI ANTTON**
hostalaritza eskolako zuzendaria

“Gardabera txirlekin, izokina papillote erara edo legatza saltsan, indioilarra saltsa gozo-mikatzarekin, mazapana eta turroia”



**MILAGROS RIAÑO**
FAVAko lehendakaria

“Etxean Gabonetan ez dugu bazkari handirik egiten. Edozein asteburutan bezala afalduko dugu. Turroia, bai, gozozaleak gara”



**TXEMA BLASCO**
Aktorea

“Zizka-mizkak, langostinoak, nekora, eta abar, ondoren gulak eta bukatzeko postrea txanpainarekin”



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Ardo beltza, Errioxan nagusi

**ARABAR ERRIOXAKO** ardoa kalitaterik gorenekoa dugu Euskal Herrian, baita munduan ere. Errioxako ardoak bi multzo nagusitan banatzen dira. Urteko ardoak batetik, eta "crianza" deiturikoak bestetik.

Ardo gazteek urtebetera izaten dute dastatzeko une egokiena. "Crianza" izenekoek egurrean hasieran eta botilan ondoren ondu arte itxaron beharko dute bere momentu egokienean egoteko. Bost urte inguru behar-ko dituzte puntu goren horretara iristeko. Beste laupabost urtetan maila onenean izango dira, baina hamargarren urtetik aurrera kaskartzen hasteko arriskuan sartzen dira.

"Erreserba" deituriko ardoek "crianza" izenekoak egindako prozesu bera jarraitu beharko dute baina luzarogoan. Erreser-bakoek hamargarren urte edo, dute unerik egokiena, eta "Gran reserva" izena daramatenek 15-20 urte beharko dituzte bere punturik gorenean egoteko.

## Nola eta zer edan.

Otordu guztietan ardo desberdinak hartzea gomendatzen dute, halere; gustoen arabera dago bata edo bestea hartzea. Ardogileek diotenez, denetatik probatu behar da aho fina lortu ahal izateko.

Alkohol garduek eta ardoaren kaletateak ez dute harreman zuzenik elkarrekin. Gaur egun 12-12,50 alkohol graduazioko ardoa edaten da, gehien bat. 14 gradu dituen ardoak nola edo halako logura sorrarazten du.

Ardo beltza edateko edalontzi gardena, kolore eta marrazkirik gabea izatea aholkatzen da, ardoaren kolorea eta garbitasuna ikusi ahal izateko.

# Jesus Oleaga:

## Euskal Herriko ardoak edari hoberenak dira Gabon Zaharrerako




Gau honetarako ardo aproposak jakiteko asmoz Jesus Oleaga, izen bereko jatetxeko sukaldariarengana hurbildu gara. "Azken urteetan modan jarri da beste herrialdetako orujo edo aguardienteak edatea. Nik ordea gabon zahar gauerako ardoa gomendatzen dut. Euskal Herrian dauzkagun ardoak oso onak izateaz gain gorputzarako beste edari hoiek baino osasungarriagoa da".

Entremesetarako Oleagak txakolina aholkatzen du, edo arabar Errioxako ardo txuria. Arraina edo mariskoak janez gero, ardo txuria urtekoa izan behar da. "Urteko ardo txuriak fruituaren zaporea dauka, eta hau oso samurra da arraina edo mariskoekin batera jateko".

### Ardo beltzak

Haragirako ardo beltzak dauzkagu. Orain arte ardo beltza kupelarik gabe egiten zen, era tradizionalean. Orain, berriz, kupela erabiltzen hasi dira ardo egileak. Ardo beltzak bi motakoak izan daitezke: batetik, "despalillado" delakoa, horretan mahats garoa bakarrik sartzen da kupelara ardoa egiteko; eta bestetik, mahats osoa kupelara sartzen dena. "Ardo beltzak paregabeak dira haragia edo zapore gogorra duten ehiza-plateretarako".

Postrerako ardoa gomendatzen digu berriro Oleagak, turroia eta mahatsekin kaba edo ardo espumosoa edan behar baita. "Kaba beste ardo mota bat da. Gau osoa ardoa edanez igarotzen duenak askoz ere gorputz hobeagoa izango du hurrengo egunean".

**ZENBAIT AHOLKU AJEA KENTZEKO**

## Salda beroa bixamona kentzeko metodorik onena.

Jesus Oleagak ondo esaten duenez biharamona kentzeko metodorik onenak lo asko egitea eta egun osoan abstinentziari eustea dira. Dena den, urteko lehenengo eguna lotan pasatzea tristea litzateke eta bestelako metodo bat eskatu diogu. "Ohitura oso zahar bat dago. Euskal Herriko baserri guztietan betidanik egon da sutondoan salda lapiko bat. Goizean, gorputza bazkal ordurako berriro prestatzeko, salda apurtxo bat edatea ez zaio inori gaizki etortzen".



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Zer egingo duzu 12ak jotzen direnean?



PABLO LASO
Baskoniako jokalaria

“Mahatsak familia artean jango ditut. Gero kalera irtengo naiz, badakizu,... aprobetxatu egin behar da daukagun egun librea. Ia ia urtero kotiloi batera joan izan naiz. Aurten, oraindik ez dut erabaki. Dena den. etxera oru txikiak pasata helduko naiz”.

“Egun horretan mahatsak ondo jan ondoren, normalean kalera irteten naiz. Aurten gauza bera egingo dut: bueltatxo bat ematera aterako naiz. Gaua, gaua da!”



BINGEN MENDIZABAL
musikaria



JON GABELLA
aktorea

“Bapo, bapo afaldu ondoren lanera joango naiz Zapa aldean dagoen taberna batera. Gero ez dakit, baina taberna itxi ondoren, suposatzen dut elkartu eta parrandan ibiliko garela”

# ZORIONAK eta URTE BERRI ON!





Bacalao Giraldo

•Egunero makailu gesaldua •Makailua eramateko prest
•36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
«Kalitatea eta erosotasuna zure esku»

Angulema, 2 - Tfnoa.: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa.: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran - Gasteiz






Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# KULTUR AJENDA



## MUSIKA

**11, asteartea** Dendaraban 8etan • **Pariseko Arts Antiqua.** Flauta/Oboe/Clarinete/Fagot/Trompa

**13, osteguna** Principal Antzokian 8,30etan • **«Entrañables 60»**

**14, ostirala** Principal Antzokian 7,45etan • **Euskadiko orkestra Sinfonikoa**

**18, asteartea** Dendaraban 8etan • **Anabel G. del Castillo, Agustin Serrano.** Violin/Piano

**25 eta 26 asteartea eta asteazkena** Principal Antzokian 5,30etan • **Euskal Herriko Hirugarren adinekoen Abesbatzen emanaldia**

**27, osteguna** Principal Antzokian 8,30etan • **Teresa Berganza.** Soprano


# HIRUTABAT

**XABIER AMURIZA•ANJE DUHALDE•UNAI ITURRIAGA**

URTARRILAK 6
arratsaldeko 8etan
BEÑAT ETXEPARE aretoan

GEU re egunak
GASTEIZ EUSKALDUNA

500 pta

ZORIONAK eta URTE BERRI ON
ESPERANTO? JES, VOLONTE!
Zapateria, 29 ☎ 22 00 71 (Natxo)

LARRUKI
Larruaren Artisautza
*KANPOKO ARTISAUTZA, BITXIKERIAK*
Kutxilleria, 26
Tfnoa: 28 38 86
01001-GASTEIZ

**JANTZI ETA OPARIAK**
Kutxilleria, 40
Tfnoa: 26 07 10
GASTEIZ
SARTU




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## ANTZERKIA

**14 eta 15, ostirala** (helduak) **eta larunbata** (haur eta gaztetxoak) Principal Antzokian 8,30etan
- **«Canal TVT»** Tarima Taldea

**21 eta 22, ostirala eta larunbata** Principal Antzokian 8,30etan
- **«Las cuatro niñitas de Picasso»** Bekereke taldea

**23, igandea** Principal Antzokian 12,30etan
- **«Beti Marsan»** Takilo, Pirrutx eta Porrotx.

**28 eta 29, ostirala eta larunbata** Principal Antzokian 8,30etan
- **«Noche de Reyes»** El Talleret de Salt

**30, igandea** Principal Antzokian 6,30etan
- **«El Principe de Dinamarca»** El Talleret de Salt



**TXONTXONGILOAK**

### «Debekatuta dago Orraze arrantza»

Proismo-0 taldea

Urtarrilak 4, 12etan Aritznabarreko Gizarte etxean

## ERAKUSKETAK



**LUIS DE AJURIA**
(General Alava 7).
Urtarrilaren 19 arte. GIZAKIA HELBURU. Erakusketa kolektiboa

**SAN PRUDENTZIO**
(San Prudentzio 30).
Urtarrilaren 23a arte INKISIZIOA. Sancho el Sabio Fundazioa

**UR-BILTEGI ZAHARRA**
(Landatxoko gaina).
Urtarrilaren 14tik aurrera. XABIER SANTXOTENA. Eskultura

**CARUSO KAFETEGIA**
(Enrike Eguren, 9).
MIGUEL ANGEL GUTIERREZ «Variedades»

**TRAIEKTO GALERIA**
(Ramiro de Maeztu 10).
Urtarrilaren 13tik aurrera. JOSE MALDONADO

**AMARIKA**
(Amarika Plaza, 4)
Urtarrilaren 30a arte
Arabako Museoaren bilduma

**KULTUR ETXEAN**
Florida, 9
10 arte KIXMI: BELEN MITOLOGIKOA
10tik 22raAmnesty International: DESAGERTETAK ETA HILKETA POLITIKOAK

**CM2**
(Herreria 24)
ANABEL QUINCOCES

**LOURDES UGARABE**
(Arkupeak 7)
Urtarrilaren 31a arte JUAN MIEG

**AITOR URDANGARIN**
(Florida, 24)
Urtarrilaren 12a arte.AITOR URDANGARIN

ONDO INFORMATU nahi zaitugu. Horretarako zure beharra dugu. Bidaliguzu antolatuko duzun horren berri. Guk argitaratuko dugu.

Eskerrik asko!

1.691 POSTAKUTXA

GEU GASTEIZ

JATETXEA HIRUAK
Kutxilleria, 26 tfnoa: 28 81 47 •GASTEIZ

Haurgailuak
Opariak
Rioja 22 • Tfnoa: 27 47 51
GASTEIZ

"UPELA" MOTRI
SAGARDOTEGIA • ZALDITOKIA
Tfnoa: 908-67 31 08 ALAIZA (Araba)



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# DENBORAPASA

## ✎ Gauden sasoiarekin bat datorren esaldi bat osatu



### ZEHARRETARA

1. Gabonetako euskal pertsonaia. 365 egun. 2. Lurrazpiko animaliatxo. Hidrogenoa. Logale. 3. Partido Popularra. Txori mota. Gauza. Bokal. 4. Gipuzkoako herriska. Katu mota. Bigarrena. 5. Baliabide, engainu. Kanpo. Atzizki. 6. Larrua. Munduratu zintuena. Konts. Konts. 7. Hika, zaizun. Ugaritasun atzizkia. Oxigenoa. Gehiegi. 8. Ekialdea. Plural atzizkia. Azpian. (Ald.) uretan hila. .... Etxart. Aluminio. Epotx. 10. Sasoia. Amai, eten. Emakume izena. Metro. 11. Nora atzizkia. Ku ........ klan. Goian Bego. Juntagailua. 12. Uretan hil. Mahometarren hilabete sakratu. Iodoa. 13. Justu. Daukate. Arabako mendi. 14. Europako eta Asiako. Nauka.

### GOITIK BEHERA

1. Alde, itzuri. Barazki. 2. Arkatza. Garoa. 3. Interjekzio. Araiar. Bururatu. 4. Noiz. ELA sindikatukoak. Eme ez. 5. Trotean. Edateko. Oxigeno. 6. Azkena. Azkena. ....... egin, boga egin atzerantz. Lasaitasuna. 7. Aurpegiko zuloa. Emakume izena. Karta-joku. 8. Kontsonante. Gatzatua. Euskal Herriko baso handiena. 9. Jolas, txantxa. Lehen pertsona. Burutazioa. 10. Argeliako garai bateko talde ultraeskuindar. Oxigeno. Sorgin-hizkeran ogia. Konts. (Ald.) Orainaldian, zitzaigun. (Ald.) Joaten ari naiz. Lehen pertsona. 12 (Ald.) Edateko. Zarpaila, alferrontzia. Txar ez. 13. Hirukoitz esan nahi duen aurrizkia. Berrogeitamar. Bai zera!. Berrogeita hamar. Bokal errepikatua. 14. Bizkaiko herriska. Zahar ez. Musulman.



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# ZURUBI



**Definizio guztiak asmatuz gero, goitik behera aurten gure aldizkarian agertu den pertsonaia baten izena agertuko zaizu. Zorte on!**

**1-2** Animalia
**3-5** Muskulo
**6-8** (Ald.) orlegi
**8-11** (Ald.) jende multzo
**1-3** (Ald) gustora
**4-6** Etxea eraikitzeko erabiliko den lur-saila
**7-9** Bizkaieraz, nuke
**10-13** Maindirea

# PUZZLEA

**Jar itzazu beheko zatiak dagozkien lekuetan eta esaera zahar bat irakurri ahal izango duzu.**







Nongoa da?



Zer egin duzu?

**URTE BERRI ON**



**irakurle guztioi!**

GEU GASTEIZ

## ERANTZUNAK



**ZURUBI**
Goitik behera: Zigor Enbeita
1-2: zaldi. 3-5: gihar. 6-8? berde. 8-11: talde. 1-3: gogoz. 4-6: orube. 7-9: neuke. 10-13: izara

**PUZZLEA**
Urte berriari, zoroak ere igarri

**IEROGRIFIKOAK**
N aparta
Ez erre Z



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# GASTEIZKO UDALA: ZERBITZU ELEBIDUNAK



## Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

## ZORIONAK ETA URTEBERRI ON

| DEPARTAMENTUA | ZERBITZUA | HELBIDEA | TELEF. | FAXA |
|---|---|---|---|---|
| ZERBITZU OROKORRAK | ARGIBIDEAK ETA HARRERATEGIA | Dato, 11 | 16 11 88 | 16 15 93 |
| LURRALDE ANTOLAKUNTZA ETA INGURUGIROA | HIRI-HOBAKUNTZA (HIRITARREKIKO HARREMANAK) | Dato, 11 | 16 13 01 | 16 15 93 |
| KULTURA | | Machete plaza, z/g | 16 12 75 | 16 12 77 |
| O.K.U.S./DEMSAC | ADMINISTRAZIO-ATALA (OMIC) | Done Bikendi aldapa, z/g | 16 12 40 | 16 12 51 |
| HERRI-JARDUERA ETA LAN HARREMANETARAKO SAILA | EUSKARA | Espainia plaza, z/g | 16 15 22 | 13 09 65 |
| GIZARTE ONGIZATEA | ADMINISTRAZIO-ATALA | Espainia plaza, z/g | 16 13 60 | 16 13 63 |
| INFORMATIKA | | Vera-Fajardo margolaria, 5 | 16 14 13 | 16 16 00 |
| HEZKUNTZA | ARANBIZKARRAKO HAUR ESKOLA | José P. Ullibarri, z/g | 28 16 35 | |
| | EL PILARREKO HAUR ESKOLA | Caracas, 6 | 22 94 99 | |
| | F.J. LANDABURU HAUR ESKOLA | F.J. Landaburu, z/g | 28 35 45 | |
| | HAURTZARO HAUR ESKOLA | Santa Maria kantoia, z/g | 14 34 33 | |
| | IZARRA-LA ESTRELLA HAUR ESKOLA | Astronomoak, z/g | 28 44 95 | |
| | OLARIZUKO HAUR ESKOLA | Dantzari plaza, 6 | 27 28 95 | |
| | TXIMELETA HAUR ESKOLA | Ricardo Sacristán, z/g | 22 46 34 | |
| | SANTA LUZIAKO HAUR ESKOLA | Federico Baraibar, 17 | 28 82 25 | |
| | TXAGORRITXUKO HAUR ESKOLA | Gasteiz hiribidea, 61 | 22 95 49 | |
| | ZARAMAGAKO HAUR ESKOLA | Nafarroako erreg., 16-B | 28 94 49 | |

VICTORIA HAEC EST QUE VINCIT

AYUNTAMIENTO DE VITORIA GASTEIZ KO UDALA

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa